



Patála

etxebizitza

Aldakerak: Makiñetxea / Zentrala
Ahozkoa: Makiñetxie / Patála

43° 11' 38"

2° 36' 19"

Gerediaga Elkartea / T. Angoitia

Argindarra ekoizteko egindako zentral hidroelektrikoa da, 1900. inguruan, energia mota hori zabaltzen hasi zenean industria eta garraiobide berrien premiak asetzeko. Gaur egun bizirik dirauen bakarra da, bere inguruko denak desagertu egin baitira. Zentrala bi momentutan egindakoa da. Hasierakoak dira turbina eta generadoreentzako gunea eta administrazioarako pentsatua. Eta 1950ean transformado-

re eta goi-tentsioko gelaxkak gordetzeko egin zuten hirugarrena. Argazkian ikusten duguna administrazioarako deitu duguna da, hots, bulego eta etxe izateko pentsatua. Eraikin soila da, simetria garbian jasoa. Harrizko zokaloaren gainekoa harlangaitzaz egin zuten, gero luzitu eta pintatzeko. Eta pisu bakoitzeko baoak ere hala dauzka, beste kolore bateko plaken bidez hornituta, etxearen kantalak bezala.

toponimia

Euskal Herriko leku izenen artean arrunta ez den izen bat dugu honako hau. Berriz, eta oro har Durangaldean, erreferente izan den zentral hidroelektriko honek duen etimoari buruzko teoriarik ez dugu.



BUA / Mapa topografikoa, 1933